

## **AZPEITIA / '3 Mariak' liburua aztertuko dute astelehean egingo den literatur solasaldian**

Udal Liburutegiak antolatuta, aurtengo bigarren solasaldia egingo da Enparan dorretxean datorren astelehenean, apirilak 29, 18:30ean hasita. Pako Aristiren gidaritzapean, oraingoan, Urretabizkaiaren '3Mariak' lana aztertuko dute.

Solasaldiak liburuak irakurri edo horrelakoetarako interesa dutenentzako zabalik daude. Liburuak irakurri edo eskuratu nahi dutenek Udal Liburutegira jo behar dute.

### **Web berria**

Solasaldien inguruko informazio guztia Literaturzaleen Txokoko webgunean eskura daiteke. Webgunea berria da oraindik eta piskanaka informazioa eguneratzen joango direla aurreratu dute. Interesatuak, **[www.literaturtxokoa.com](http://www.literaturtxokoa.com)** bisita dezakete.

Webgunerako edo gainerako jardueretarako norbaitek gomendio edo proposamenik izango balu, web orrian bertan agertzen den e-postara bidali daiteke. Halaber, informazio zuzenean norbere postan jaso nahiz gero, helbidea lagatzea besterik ez dago eta mailing sistemari esker interesatuak informazioa eskuratzeko aukera izango dute.

Bestalde, ebook-arekiko irakurleen joera ikusita, Ebook sistemaren inguruko atal berezia ezarri dute. Horrela, doako liburuak deskargatzeko, liburu elektronikoa internetez erosteko guneak, e.a., agertzen dira.